

Lezoko zine agenda


AZAROA - Noviembre • ABENDUA - Diciembre

2003



800
zine ma






PULP FICTION

Elkarrekin lotutako hiru historia. Biolentzia, pertsonai paregabeak, eta elkarriketa apartekoak, hamarkada bat igaro gabe klasiko bihurtu da.

1994, EEBB
 Q. Tarantino
 Uma Thurman, John Travolta, Samuel L. Jackson, T. Roth, H. Keitel.
 154 min.



THELMA & LOUISE

90. hamarkadako Estatu Batuetako bi emakume ezagunenetarikoa bilakatu ziren Thelma eta Louise. Road movie klasiko egituragatik, baina berezia horrelako generoan protagonista nagusiak emakumeak direlako. Brad Pitt pelikula honetatik aurrera hasi ginen ezagutzen.

1991, EEBB
 Ridley Scott
 Susan Sarandon, Geena Davis, Harvey Keitel, Michael Madsen.
 129 min.



SOSPECHOSOS HABITUALES

Historia hau 1.500 piezako puzzle baten antzekoa da. Gainera pieza horiek kolore beretsukoak dira... Ia osatu ez daitekeen puzzlea alegia. Pelikulan historia behar bezala borobiltzen da eta puzzlea erabat osatua geratzen da. Halere, kaxako tapan datorren argazkia eta azkenean puzzlea osatuz ateratzen dena oso diferenteak dira.


1995, EEBB-Alemania
 Bryan Singer
 Kevin Spacey, Gabriel Byrne, Benicio del Toro, Stephen Baldwin, Chazz Palminteri.
 106 min.



LA VIDA ES BELLA

Benignik hiru Oscar lortu zituen filme honekin. Hori garrantzitsua izanda ere, pelikularen ekarpenik garrantzitsuena eskaintzen duen bizitza filosofia da: errealtateari (nahiz eta oso gogorra izan) aurre egiteko tresnarik eraginkorrena umorea izan daiteke.

1997, Italia
 Roberto Benigni.
 Roberto Benigni, Nicoletta Braschi, Giustino Durano, Sergio Bini Buscic.
 122 min.



REQUIEM POR UN SUEÑO

Gizarte kritika zehatza eta edukiz erabat hornitua. Estetikoki bideokliparen kulturatik edaten du, filme oso dinamikoa lortuz. Bestalde, ikustera ohituta ez gauden Estatu Batuek hurbilagozik deskubritzeko aukera eskaintzen digu (ikus berriro izenburua). Gustokoa edo ez, ahazteazina izango dela seguru!


2000, EEBB
 Darren Aronofsky.
 Ellen Burstyn, Jared Leto, Jennifer Connelly, Marlon Wayans.
 102 min.



LOS LUNES AL SOL

Langabezia umorez baina egoera dramatikoari errespeturik galdu gabe, oreka ia perfektua lortzen du pelikula honek bi sentimendu horien artean. Errekonozimendurik ba ote duen? Ikus irabazitako sariak: Donostia-ko Urrezko maskorra, 4 Goya sari, Europako Zinema Akademiaren aktore hoberenaren saria...

2002, Esp., Fr., Italia
 Fernando León de Aranoa
 Javier Bardem, Luis Tosar, J.A. Egido, Nieve de Medina.
 113 min.



EL SILENCIO DE LOS CORDEROS

Psycho Killer-ra den munduko psikiatrarik ospetsuena: Hannibal the Cannibal. Orain arte ezagutu dugun FBIko agenterik erakargarrienetarikoa. Bi pertsonai azkarren arteko lehia paregabea... Ummm! mokadu ederra!!!!

1991, EEBB
 Jonathan Demme
 Anthony Hopkins, Jodie Foster, Scott Glenn, Ted Levine.
 118 min.



MATRIX

Gaur egungo zientzia fikzioa efektu berezirik gabe ulergaitza den arren, jeneroan iraultza berria izan da argumentuaren aldetik egindako ekarpenagatik. Gizakiek "bizitza" mota ezberdinak aukeratzeko parada izatea ere... Nork pentsa zezaken?


1999, EEBB
 Andy eta Larry Wachowski
 Keanu Reeves, L. Fishburne, Carrie-Anne Moss, Joe Pantoliano.
 136 min.



MUCHO RUIDO Y POCAS NUECES

Maite nau, ez nau maite, maite nau, ez nau maite, maite nau... Benetan zoragarria, inork ez zezakeen pentsa Shakespearearen obra hau hainbeste umorekin egokitu zitekeenik zinemara. Umorea, trama, sexuen arteko borroka...


1993, EEBB, UK
 Kenneth Branagh.
 Kenneth Branagh, Emma Thompson, Keanu Reeves, Kate Beckinsale, Denzel Washington, Michael Keaton.
 111 min.



SOUTH PARK

Simpsonarrak, gaur egun Shin Chan..., South Park ildo beretik landutako filmea da: biraoak, lizunkeria, lotsagabekeriak... Halere, hori anekdotatzat har daiteke, garatzen duen gaia benetan mamitsua baita.


1997, EEBB
 Hainbat.
 Helduentzako marrazki bizidunak
 78 min.



CHIHIREN BIDAIA

Animaziozko film hoberenagatik Oscarra eman zioten 2003an. Kalitatezko marrazkiak eta irudimenez betetako historia zoragarria. Chihiro, irudimen amaigabeko haurra, pertsonai xeble askoz osatutako unibertso berezi batean galtzen da.

2001, EEBB, Japonia
 Hayao Miyazaki.
 Marrazki bizidunak.
 125 min.



KARRAMARROEN UHARTEA

Goya sariaren irabazle izan zen 2001ean animaziozko film hobereña izateagatik. Kolore oso biziak dituzten marrazkiak eta abenturazko piraten historia entretenigarri bat. Ezetz aspertu?

2001, Euskal Herria
 Joxean Muñoz, Inazio Mujika.
 Marrazki bizidunak.
 68 min.



PASTEL MAGIKOA

Bunny Bluegum, umezurtza dela uste duen koala gazte batek, behar bada bere gurasoak bizirik daudela pentsatzen du eta aurkitzen saiatzen da. Bere bidaian Bill Banacle ezagutzen du. Zer gertatzen da pastel magiko honekin?


2000, Australia
 Karl Zwicky
 Marrazki bizidunak.
 80 min.



OLENTZARO

Olentzeroren bertsio musikala da oraingo hau. Gontzal Mendibil, Iturrengo Zantantzarrak, Kukubiltxo eta artista ezagun gehiagoren laguntzarekin egindako filmea. Gabonetan murgiltzen hasteko parada ezin hobea.

1993, Euskal Herria
 Rodolfo Criado.
 Marrazki bizidunak.
 65 min.



DORAEMON ETA HEGO ITSASOETAKO PIRATAK

Japoniako marrazki bizidunek arrakasta handia izan ohi dute haurren artean, heldu gehienentzako misterioa bada ere. Oraingo honetan ekialdetik datozkigun pertsonaiak Doraemon eta bere lagunak dira, eta hegoaldeko itsasoetan abentura ikaragarriak pasako dituzte piratekin.

2002, Japonia
 Hainbat.
 Marrazki bizidunak.
 88 min.

Eguna /día

PULP FICTION
LOS LUNES AL SOL
CHIHIREN BIDAIA

Eguna /día

THELMA & LOUIS
EL SILENCIO DE LOS CORDEROS
KARRAMARROEN UHARTEA
SOSPECHOSOS HABITUALES
MATRIX
PASTEL MAGIKOA

Eguna /día

LAVIDA ES BELLA
MUCHO RUIDO Y POCAS NUECES
OLENTZARO
REQUIEM POR UN SUEÑO
SOUTH PARK
DORAEMON ETA HEGO
ITSASOETAKO PIRATAK

A Z A R O A - N O V I E M B R E

OSTEGUNA 27	LARUNBATA 29	IGANDEA 30	OSTEGUNA	LARUNBATA	IGANDEA
20:00					
	20:00				
		16:30			

A B E N D U A - D I C I E M B R E

OSTEGUNA 4	LARUNBATA 6	IGANDEA 7	OSTEGUNA 11	LARUNBATA 13	IGANDEA 14
20:00					
	20:00				
		16:30			
			20:00		
				20:00	
					16:30

OSTEGUNA 18	LARUNBATA 20	IGANDEA 21	OSTIRALA 26	LARUNBATA 27	IGANDEA 28
20:00					
	20:00				
		16:30			
			20:00		
				20:00	
					16:30

etorri eta
dastatu
te lo ponemos
muy fácil

ZINE EGITARAUA

Lezoko Udalak *Zinema 800* izenarekin bataiatu duen egitasmoa jarriko du martxan. Egitasmoaren funtsa zine eskaintza egitea da ahalik eta gustu ezberdinenak asetzeko asmoarekin.

Zinema 800 egitasmoa hiru ardatz nagusitan oinarrituko da:

► Zine historiaren izarrak

Programazio eguna, osteguna. Ordua, 20.00. Prezioa, 2,00 €

Zineari "zerbait gehiago" eskatzen dionarentzat bereziki prestatua. Zuzendari interesgarrien lan aipagarriak, berrikuntza estetikoak, zine mugimendu ezberdinen uneak, nazioarteko festibaletan sarituak, Donostiako zine karteleratik pasa ez direnak... Hau da, zinearen historian berezko izena eskuratu duten filmak ostegunero Lezoko Gezala Auditoriumean.

► Izarren zinea

Programazio eguna, larunbata. Ordua, 20.00. Prezioa, 2,00 €

Gutxiengo kalitatea abiapuntua izanik, maila ezberdinetako filmak izango dira ikusgai. Aukeraketan baloratuko den aldagai nagusia filmak izan duten arrakasta komertziala izango da. Erraz ulertzeko *komertziala* dei genezakeen saila litzateke honako hau. Orokorrean, *Hollywood-eko film entzutetsuak* programatuko dira.

► Zine-gaztea

Programazio eguna, igandea. Ordua, 16.30. Prezioa, 1,00 €

Haur eta gazteei zuzendutako egitasmoa da. Oro har, euskaraz izango da, eta hemen ere kalitatea eta, bereziki, edukia zaintzeaz gain, film ezagunak izango dira ikusgai. Haur eta gazteentzat arratsalde-pasa atsegina nahi dugu, behingoz, Lezotik atera gabe. Hala ere, dokumentalek edota bestelako filmek ere izango dute tarte. Estreinatutako berri diren filmak gutxienez urtebetera.

